



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko maiatzaren 6a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin lankidetzan, Erosketa Sozial eta Solidarioaren Bulegoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat presta dezan, Nafarroako talde artistikoek Baluarteko Ganbera Aretoa erabili ahal izan dezaten beren jardueren erakusleihu eta proiektio gisa. Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza hutsen inbentario-erregistroa egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irisgarritasun eta ezgaitasun inpaktuari buruzko txostenak egin beharra arautu dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun prestazioen katalogoa gaurkotu eta berritu dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen arloko Jasangarritasunari buruzko Plan Estrategikoa presta dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko zergatik ez den oraindik onetsi ordainketan parte hartzeari buruzko foru dekretua, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (12. or.).

- Galdera, larrialdi zerbitzuei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (12. or.).
- Galdera, Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan % 1 kulturala programari dago-kionez xedatutakoaren erregelamendu bidezko garapenaren betetzeari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Zilbetiko errepidea egokitzeko kontusailaren betetze-mailari buruzkoa, José M.^a Vázquez Royo jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak karobien hondakinei edo modalitateei buruzko katalogorik ba ote duen jakiteko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).
- Galdera, mahatsondoaren eta ardoaren teknologia zentroa sortzeko asmoari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko nola beteko duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak Barañaingo Auditorioaren Guneko kudeatzaileekin lehen finantzaketa hitzarmenean adostutako aurrekontua, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Patxi Goñi Boluntarioen Eskolari, Agoizko Bilaketa Kultura Taldeak kudeatutakoari, emandako dirulaguntzei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Agoitzeko Casa Díaz izeneko eraikin babestuan apartahotel bat edo turismoko apartamentuak eraikitzeko asmoari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak enpleguko dirulaguntza zuzenera eta langabetuen prestakuntzara bideratutako baliabide ekonomikoei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak eta euskarazko hedabide nafarrek finantzaketa hitzarmenak sinatzeari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Azken urteotan ikusi ahal izan dugu nola, sarritan, gure foru erkidegoan, eguraldi txarra dela-eta, uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiak gertatu izan diren. Halako hondamendiek askotariko kalteak eragin izan dituzte jabetza partikular nahiz publikoetan, eta horren ondorioz, beharrezkoa izan da Administrazioak esku hartzea eta zenbait laguntza ezartzea, bat-batean sortutako egoera horien eraginak arintze aldera.

Beraz, ohikoa da administrazio publikoek, dituzten eskumenen arabera, erantzunak eta laguntzak ematea, eragindako kalteak konpontzeko, neurri batean behintzat. Kontuan hartuta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezarritakoa legezko erreserbari eta toki entitateei konpentsatzeko formulari buruz, egokitzen jotzen da zehaztea, foru lege baten bidez, formula homogeneo bat, zehaztuko duena noa lagundu behar zaien aipatu udalerriei kalteak eragiten dituen hondamendi bat gertatuz gero, bai salbuespen fiskalen bidez, bai horretarako eta gertatzen diren kasu guztietarako baliagarritzat jotzen diren bestelako formulen bidez.

Horrenbestez, foru lege honek denboran irauteko eta indarraldi mugagabea izateko borondatea du, baina, halaber, atzeraeraginez, kontuan hartu nahi ditu 2009ko otsailean izandako uholdeek kalteturiko udalerriak.

Horren ondorioz, lege honek zehaztu nahi du halako gertaerak izaten direnean eman beharreko

laguntzen esparru orokorra, ondoren, Nafarroako Foru Komunitatean gerta daitekeen kasu bakoitzeko xedatzen den foru aginduaren bidez garatua izan dadin, hala, laguntzak ahalik eta arinen izapidetze aldera.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da laguntza- eta onura-neurriak ezartzea 2009ko otsaileko uholdeek eta hurrengo urteetan, Nafarroako Foru Komunitatean antzeko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kaltetuta izan litezkeen pertsona fisiko nahiz juridikoentzat.

2. artikulua. Laguntzen onuradunak.

Une bakoitzeko gobernuaren departamentu eskudunak emandako kasuan kasuko foru aginduaren bidez, kaltetutako udalerrien eta biztanleen zerrenda eginen da, bai eta horiek jaso ahalko dituzten laguntzena ere.

3. artikulua. Epeak.

Aipatu foru agindua emanen da hondamendia gertatu eta hilabeteko epean, eta bertan jasoko dira, halaber, foru lege honetan aurreikusitako laguntzen eta/edo kalteordainen eskaerak aurkezteko epeak, betekizunak eta baldintzak. Foru lege honetatik at geratuko da 2009ko otsailean izandako uholdeei aurre egiteko arautzen diren laguntzei, baldintzei eta betekizunei dagokien foru agindua, zeina eman beharko baita foru lege hau onetsi eta hilabeteko epean.

4. artikulua. Laguntzen izaera.

Hondamendiak kaltetutako higiezin titullarrak, bigarren artikuluan aipatu udalerritakoak izanez gero, salbuetsirik egonen dira hondamendia gertatu den urteko lurraldearen gaineko kontribuziotik. Salbuespen gisa, kontuan hartuko dira 2009ko otsaileko uholdeen ondorioz kalteak jasan zituzten udalerriak.

5. artikulua. Beste laguntza osagarri batzuk.

Hondamendien ondorioz kaltetutako jarduerak, halaber, jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaintzetik salbuetsiko dira eta, era berean, erakuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsi ahalko dira, bigarren artikuluan aipatu foru aginduan ezarritako baldintzen arabera; baldintza horietan sartu ahalko da kaltetutakoa birjartzea edo berreraikitzea.

6. artikulua. Udalen konpentsazioa.

Foru lege honetan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz udaletan gertatzen den dirusarrerren murriztea konpentsatzen ahalko da uztailaren 15eko 220/2003 Foru Dekretuan araututako proze-

durari jarraikiz, eta Nafarroako aurrekontu orokorretan horretarako dagoen kontusailaren kargura ordainduko da.

7. artikulua. Ekipamendu eta azpiegitura publikoetan eginiko kalteen konpentsazioa.

Ekipamendu eta azpiegitura publikoetan kalteak izanez gero, kaltetutako toki entitateek lehentasuna izanen dute dagozkien laguntzak jasotzerakoan, kaltetutako elementuak berreraiki edo konpontzeko, lehen zituzten ezaugarrien arabera, eta beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko arrazoi berak direla-eta berriz kaltetuak ez izateko. Lehentasun hori zehaztuko da une bakoitzeko gobernuaren departamentu eskudunak emandako kasuan kasuko foru aginduan.

8. artikulua. Aurrekontu-beharrizanak.

Ekitaldi honetako aurrekontu-beharrizanak estaltzeko, bai eta hurrengo ekitaldietarako, beharrezkoa balitz, Nafarroako Gobernuak behar diren kreditu bereziak eta/edo osagarriak izapidetuko ditu, foru legeetan ezarritakoari jarraikiz.

Lehenengo xedapen gehigarria. Laguntzen izaera osagarria eta subsidiarioa.

Foru lege honetan ezarritako laguntzak ondo-koen osagarriak eta subsidiarioak izanen dira beti, eta hurrenkera honetan: sinatutako aseguru polizen konpentsazioak, bai eta Estatuan edo Europar Batasunean halako egoerarako izan daitezkeen laguntzak ere.

Horretarako, foru lege hau garatuko duten foru aginduak kontuan hartuko dute osagarritasun eta subsidiarioritasun hori, eta, horrenbestez, onuradunek, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan, polizen titularrak diren aseguru-etxeetan izapidetu beharko dituzte konpentsazioak, eta, modurik badago, kasuan kasuko laguntzak eskatu ahalko dituzte Estatuko edo Europar Batasuneko administrazioetan.

Edonola ere, laguntzak emateko formulak ezarri ahalko dira, betiere aurrerakin izaera izanen dutenak, beste administrazio batzuetan eginiko laguntza eskariak ebatzi bitartean.

Bigarren xedapen gehigarria. Garatzeko baimena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin lankidetzan, Erosketa Sozial eta Solidarioaren Bulegoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin lankidetzan, Erosketa Sozial eta Solidarioaren Bulegoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Elkartasunezko ekonomiak gizartearen eta ingurumenaren garapena sustatzen du, halako moduz non gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien beharrezkoak integratzen baititu. Haren eragina, behar handiena duten pertsonen pobrezia eta bazterketa sozialaren ondorioak arintzera ez ezik, zuzenduta dago baita ere egoera horiek sortzen dituzten arrazoiak eraldatzera, eta gizarte-

kohesioa eta ingurumenaren jasagarritasuna sustatzen ditu.

Horrekin lotuta, nabarmendu behar da Administrazioak eskura dituen tresnen artean, badela bat bereziki eraginkorra dena gizarte-zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko. Tresna hori kontratazio publikoa da, hain zuzen. Eragin handia duen tresna da, kuantitatiboki garrantzi izugarria izateagatik (norainokoa, eragina eta emaitzak) eta ahalmen kualitatiboagatik (izaera erreferentziala eta eredugarria, transferentzia gaitasuna, berdin jokarazteko ahalmena eta enpresen erantzukizun sozialaren esparruan duen eragina).

Hala, Nafarroako Parlamentuak, errealitate hori kontuan hartuta, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 51. artikuluen aldaketa onetsi zuen, kontratu publikoak esleitzeko irizpideen artean klausula sozialak sartze aldera.

Hori ez da Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak klausula sozialei buruz egiten duen aipamen bakarra; izan ere, 49. artikuluan ahalbidetzen da izaera sozialeko betekizunak sartzea, eta 9. artikuluan ahalbidetzen da kontratuen esleipena laneratzeko zentroentzat eta enplegu zentro bereizentzat gordetzea. Entitate horiek funtsezko lana egiten dute lan merkatuan zailtasun gehien dituzten pertsonak laneratzeko.

Horrenbestez, beharrezkoa da administrazio publikoen jardun eraginkorra, halako moduz non kontratu publikoen portzentaje bat zentro horientzako gordeko baita. Izan ere, badira zenbait udal interesa dutenak baliabide gutxien dituzten pertsonentzako enplegarritasun prozesuetarako laguntza emateko, kontratazio publikoen bidez.

Elkartasunezko ekonomiaren barruan, askotariko enpresa edo erakunde sozial aurki daitezke, hala nola gizarteratze-enpresak, bidezko merkata-

ritza sustatzen duten gobernuz kanpoko erakundeak, ekoizpen ekologikoko enpresak, banka etikoko erakundeak eta abar.

Hortaz, kontratazio publiko jasangarriak bi alderdi ditu. Batetik, gizarte-politikak sartzen ditu kontratazio publikoetan, eta bete egiten du botere publikoek duten betebeharra beharrezkoak diren baldintzak sustatzeko eta eragozpenak kentzeko, aukera berdintasuna eta gizarte-kohesioa bermatze aldera. Bestalde, xedea da kontratu publikoen bidez sustatzea gizartea- edo ingurumen-arloan balio erantsi bat eskaintzen duten enpresak, eta, halaber, bidezko merkataritza, ingurumenarekiko errespetua edo gizarteratzea eta laneratzea sustatzea.

Askotan esan den moduan, kostu ekonomiko gehiturik ez duen neurri bat da, dakarren bakarra baita kontratazioaren bidez egiten den inbertsioa berbideratzea.

Hori dela eta, jada daukagun araudia eta gizar-tearen borondatea betetzeko oinarritzko mekanismoetako bat da kontratazio publikoari buruzko informazio, kontzientziazio eta kudeaketa prozesuak hobetzea.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentutaldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean abian jardezan, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin lankidetzan, Erosketa Sozial eta Solidarioaren Bulegoa, administrazio publikoetako kontratazio publiko jasangarria modu eraginkorrean garatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio aipatu bulegoaren oinarritzko eginkizuna izan dadila neurriak hartzea kontratuen erreserben eta klausula sozialen ezarpena arindu eta errazteko: erosketa publiko jasangarriari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-ekintzak egitea, hornitzaile sozialak sustatu eta ikusaraztea, trebakuntza tailerrak ematea Nafarroako administrazio publikoetako langileei, entitate publikoei aholku ematea administrazio baldintzen orrietan, elkartasunezko ekonomiaren gaikuntza eta profesionalizazioa hobetzea eta bitartekari gisa aritzea hirugarren sektorearen eta klausula sozialen aplikazioan interesaturik dauden administrazioen artean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat presta dezan, Nafarroako talde artistikoei Baluarteko Ganbera Aretoa erabili ahal izan dezaten beren jardueren erakusleho eta proiektio gisa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketa plan bat presta dezan, Nafarroako talde artistikoei Baluarteko Ganbera Aretoa erabili ahal izan dezaten beren jardueren erakusleho eta proiektio gisa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean eztabaida eta onets dadin. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat presta dezan, Nafarroako talde artistikoek Baluarteko Ganbera Aretoa erabili ahal izan dezaten beren jardueren erakusleho eta proiektzio gisa.

Zioen azalpena

2009ko martxoaren 26an, parlamentu-talde honek galdera egin zion Gobernuari Baluarteko Ganbera Aretoko jardueri eta areto horren eraginari buruz. Zehazki, honako galderak egin genituen:

1.- Areto horretan inauguratu zenetik eginiko jardueren zerrenda, urtearen arabera zehaztuta.

2.- Areto horretan inauguratu zenetik eginiko jarduera hertsiki kulturalen zerrenda, urtearen arabera zehaztuta.

3.- Ganbera aretoan eginiko jardueren ehuneko, jarduera kopuru osoari dagokionez.

4.- Ganbera aretoan eginiko jardueren ehuneko, Baluartean egin den jarduera kopuru osoari dagokionez.

5.- Ganbera aretoak duen eragina eraikinaren ustiaketari buruzko kontuetan.

Erantzuna behar den epean eta moduan eman da, eta bertan, laburbilduz, ondoko datuak jasotzen dira:

1.- Aretoran, jardunean daramatzan 5 urte luze-etan, 237 ekitaldi egin dira eta 342 egunetan okupatu da.

2.- Urte horietako kultura ekitaldiak 87 izan dira, eta erabilitako egunak, berriz, 88.

3.- Ganbera aretoan eginiko jardueren ehuneko, jarduera kopuru osoari dagokionez, % 36,7koa izan da.

4.- Ganbera aretoan eginiko jardueren ehuneko, jarduera kopuru osoari dagokionez, % 12koa izan da.

5.- Ganbera Aretorekin ustiaketari buruzko kontuak Baluarteko oinarriko jarduera guztien % 2 egin du.

Horrenbestez, agerikoa da Ganbera Aretoa, oro har, gutxi erabiltzen dela, eta bereziki gutxi erabiltzen dela kultur gune gisa.

Bestalde, areto horren kokaguneak, garrantziak eta izaera enblematikoak bereziki egokia egiten dute talde nafarrei zuzenduriko berariazko ziklo artistikoak; izan ere, talde horiek bultzada, erraztasunak eta babesa behar dituzte. Gure parlamentu-taldeak aukera hori iradoki izan du Parlamentuko agerraldietan, eta badirudi parlamentu-taldeen oniritzia duela eta Departamentua bera ere aztertze-ko prest dagoela.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta onets dadin:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa plan bat presta dezan, Nafarroako talde artistikoek Baluarteko Ganbera Aretoa erabili ahal izan dezaten beren jardueren erakusleho eta proiektzio gisa.

2.- Plan hori Legebiltzarrean aurkeztu beharko da 2009ko azaroaren 1a baino lehen, izan dezakeen kostu ekonomikoa 2010eko aurrekontuan aurreikuste aldera.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da etxebizitza hutsen inbentario-erregistroa egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita etxebizitza hutsen inbentario-erregistroa egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuia etxebizitza hutsen inbentario-erregistroa egin dezan premiatzen duen ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Talde politiko gehienak bat gatoz esaterakoan beharrezkoa dela neurriak hartzea hutsak dauden etxebizitzak erabiltze aldera.

Horretarako, ezinbestekoa da, etxebizitza hutsak behar dituzten herritarren eskura jartzeko edozein neurri hartu aurretik, hutsik dauden etxe-

bizitzen inbentarioa egitea, lan egiten hasteko tresna funtsezkoa eta lehenbizikoa baita.

Horrekin lotuta, udalerrri askok ezarri dute, beren eskumenetan oinarrituta, etxebizitza hutsen gaineko zerga bat, baina, hala ere, ezin izan dute erabaki hori bete, ezinezkoa izan baitute kasuan kasuko erregistroa edo inbentarioa egitea, ez zituztelako eskura behar diren tresnak zerga hori ekitatez eta zuzenbidez, hau da, objektibotasunez, aplikatu ahal izateko.

Horrenbestez, inbentario edo katalogo hori ezinbestekotzat jotzen denez, eta orain arte ez direnez egin hura zehazteko egin behar diren urratsak, ondoko mozioa aurkeztu dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du 2009ko azaroa baino lehen osa dezan hutsik dauden etxebizitzaren erregistro-inbentarioa, bere baliabideekin edo Tracasa enpresa publikoari eginiko enkarguaren bidez, eta bete ditzan 3.000 biztanletik gorako herrietan behintzat erregistro hori sortzeko beharra jasotzen duen foru araudiak ezarritako baldintzetara egokিতuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Toki Administrazioiko Departamentuak, erregistroa egin bitartean, eta Tracasarekin lankidetzan, jarraibideak ezar ditzan toki entitateei aholkuak emateko, interesa dutenek aipatu erregistroa ezagutu eta bertan parte hartu ahal izateko (bere udalerriri dagokion heinean) eta zergen gainean hartu dituzten erabakiak 2010ean bete ahal izateko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irisgarritasun eta ezgaitasun inpaktuari buruzko txostenak egin beharra arautu dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita irisgarritasun eta ezgaitasun inpaktuari buruzko txostenak egin beharra arautu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irisgarritasun eta ezgaitasun eraginari buruzko txostenak egin beharra arautu dezan.

Proposamenaren azalpena

Badira, XXI. Mendean, heldu, aurre egin eta gainditu beharreko erronka handiak. Horietako bat da krisialdi ekonomikoa, eta hura enplegu berrien sorreraren bidez kopondu ahal izatea.

Beste bat da premia gehien dituzten herrialde eta eskualdeekiko elkartasuna eta laguntza, eredu ekonomiko eta sozial garatuago bat eta bizi kalitate hobea izan ditzaten.

Baina aurrekoak eta aipatu gabeko beste batzuk bezain erronka garrantzitsua izan daiteke,

XXI. mendean, arauak, neurriak edo hitzarmenak abian jartzea, pertsonen arteko komunikazioa, zentzu zabalenean, erraztu eta ahalbidetzeko.

Hori dela eta, zenbait erakundek, Nazio Batuen Erakundetik hasita Nafarroako Parlamentura, adierazpenak eta konpromisoak sinatu dituzte, zailtasun gehien dituzten pertsonen, hau da, ezgaitasunen bat duten pertsonen arteko bizitza eta komunikazioa ahalbidetzeko eta sustatzeko.

Horrenbestez, ikuspuntu horretatik, konpromiso horien bidez administrazio publikoek zaindu behar dute legeek, arauak, hitzarmenak, baliabideek eta zerbitzuek kontuan hartuko dituztela oztupo gehien dituzten pertsonen beharrezkoak eta zailtasunak, hau da, ezgaitasunen bat duten pertsonenak.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurten era ofizialean arau dituzan beharrezkoak diren administrazioeko prozesu guztiak, halako moduz non, arauak (foru dekretuak eta foru aginduak) aintzat hartu eta onetsi aurretik, kasuan kasuko organo edo zerbitzuak irisgarritasun eta ezgaitasun eraginari buruzko txostenak egin beharko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urte hau amaitu baino lehen gara dezan indarrean dagoen legeria eta arau dituzan administrazioeko prozedurak, horrela Nafarroako gainerako administrazioek, entitateek eta enpresa publikoek, akordio garrantzitsuak hartu aurretik, irisgarritasun eta ezgaitasun eraginari buruzko txostenak egin eta espedienteetan sar ditzaten.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun prestazioen katalogoa gaurkotu eta berritu dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun prestazioen katalogoa gaurkotu eta berritu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun prestazioen katalogoa gaurkotu eta berritu dezan.

Zioen azalpena

2003an, Osasun Sistema Nazionalaren Kohe-siorako eta Kalitaterako Legearen bidez, arautu zen Osasun Sistema Nazionalaren osasun prestazioen katalogoa, eta bertan oinarritzko baldintza komunak zehaztu ziren Estatu osorako, osasun zerbitzuari dagokionez. Geroago, 2006an, 1030/2006 Errege Dekretuaren bidez, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komunen zorroa ezarri zen, eta bertan zehazten dira herritarrek jaso ditzaketan osasun prestazio guztiak.

Halaber, errege dekretu horretan ezartzen da autonomia erkidego bakoitzak, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komun zorroaz gain, beste prestazio batzuk ere sar ditzakeela bere zerbitzuen zorroan.

Badira jada zenbait autonomia erkidego, 1030/2006 Errege Dekretuan oinarrituta, beren araudiak eta zerbitzuen zorroak prestatu dituzte-

nak, hala nola Andaluzia, Extremadura eta Aragoi, besteak beste.

Nafarroan ez dago osasun zerbitzuen zorro berariazkorik. Zerbitzu komun zorroa onartu da, eta badira zenbait lege, dekretu eta foru agindu osasun prestazio osagarriak arautzen dituztenak. Dagoen arazoa da badirela 10 urte baino gehiago zenbait prestazio ez direla erabiltzen; baita 14 urte ere, kasu batzuetan. Bestalde, gai horri buruzko hainbeste arau izateak eragiten du prestazioak oso barreiatuta egotea eta herritarrek haien berri ez izatea.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ekimen desberdinak aurkeztu ditu Legebiltzarrean, zenbait osasun prestazio gaurkotzeko, hala nola:

~ Osasun arloko garraioa: 2009ko otsailaren 12an mozio bat onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen osasun garraioaren antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berri hel ziezaion.

~ Prestazio ortoprotesikoak: heldu den apirilaren 28ko Osasun Batzordean mozio bat aztertuko da, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita prestazio ortoprotesikoen katalogoa eguneratu dezan.

Halaber, Nafarroako 2006-2012 aldirako Osasun Planean jasota dago beharizan hori, esaten baitu: "Plan honek heltzen dio osasun prestazioak berrikusi eta gaurkotzeko beharri, eta dokumentu bateratu batean biltzen ditu bai nahitaezkoak diren osasun sistema nazionalako oinarritzko osasun prestazioak, bai Nafarroan osagarri diren beste batzuk ere".

Gure ustez, hobe da prestazioen gaiari modu orokorrean heltzea eta prestazio guztiak arau bakar batean biltzea. Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondo-ko mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako osasun prestazioen katalogoa gaurkotu, berritu eta bateratu dezan eta Nafarroako osasun zerbitzu publikoen zorroan jaso dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen arloko Jasangarritasunari buruzko Plan Estrategikoa presta dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen arloko Jasangarritasunari buruzko Plan Estrategikoa presta dezan

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramirez Errok eta Patxi Zabaleta Zabaletak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eldunek, 2009ko apirilaren 23an eginiko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorioz, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Apirilaren 23an, foru parlamentari Maiorga Ramirez jaunaren ekimenez, Nafarroako Gobernuak abian dituen jasangarritasunari buruzko politiken gaineko jabeldura bat eztabaidatu zen.

Eztabaidan iritzi desberdinak azaldu ziren, Nafarroako Gobernuak gure ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapen jasangarriekin

duen konpromisoari eta lortzen dituen emaitzei buruzko asebetetasun-mailari dagokionez. Hala ere, nabarmentzekoa da adostasuna dagoela, teorian behintzat, esaterakoan beharrezkoa dela lehentasuna ematea parametro jasangarrietara berbideratzeari gure ekonomia, gizarte eta horrek ingurumenean duen eragina; izan ere, zenbait hizlari bat etorri ziren esaterakoan beharrezkoa dela era holistikoa jardutea, erakundeen jarduera guztiak kontuan hartuta.

Hori dela eta, uste dugunez proposatzen dugun formula tresna oinarritzko eta funtsezkoa izan daitekeela erakunde guztientzat, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen arloko Jasangarritasunari buruzko Plan Estrategikoa presta dezan. Plan hori Nafarroako Gobernuko departamentu guztiei eraginen dien zeharkako jardun-gida bat izanen da, arlo desberdinetako helburuak ezarriko dituen eta beharrezkoak diren tresna publikoak diseinatuko dituen, Administrazioaren jardura guztiei garapen jasangarriaren arloari buruzko erabateko kontzientzia emateko.

2. Nafarroako Jasangarritasunari buruzko Plan Estrategikoa prestatzerakoan Nafarroako Unibertsitate Publikoaren partaidetza eta lankidetzat bilatuko da, bai eta foru erkidegoko erakunde sozial, ekonomiko eta ekologistena ere.

3. Plana Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da mozio hau onetsi eta urtebeteko epean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramirez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zergatik ez den oraindik onetsi ordainketan parte hartzeari buruzko foru dekretua.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez den oraindik onetsi ordainketan parte hartzeari buruzko foru dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan apirilaren 21ean Osasun Batzordeak eginiko bilkuran, agerraldia egin zuten Gizarte Gaietako kontseilariak eta Osasun kontseilariak. Batzorde horretan esan zenez, Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 17an onetsitako mozio bat betetzeko, beharrezkoa da koordaintari buruzko foru dekretu bat onestea.

Zazpi hilabete igaro dira aipatu mozioa onetsi zenetik. Hori dela eta, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Zergatik ez da onetsi oraindik koordaintari buruzko foru dekretu hori?

Iruñean, 2009ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, larrialdi zerbitzuei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, larrialdi zerbitzuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Egia al da zure departamentua larrialdietarako zerbitzuak indartzearen alde ari dela apustua egiten?

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan % 1 kulturala programari dagokionez xedatutakoaren erregelamendu bidezko garapenaren betetzeari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan % 1 kulturala programari dagokionez xedatutakoaren erregelamendu bidezko garapenaren betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ekimen bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artiku-

luan xedatutakoa, % 1 kulturala programari dagokionez. Ekimen hori 2008ko abuztuaren 12ko NPAOn argitaratu zen. Mozio hori 2009ko otsailaren 12ko Osoko Bilkuran eztabaidatu zen eta aho batez onetsi zen. Gobernuaren sostengu diren UPN eta CDN alderdiak ere alde agertu ziren.

Mozioa 2009ko otsailaren 24ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta haxe zioen, hitzez-hitz:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan xedatutakoa, % 1 kulturalari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuak bi hilabeteko epea ezartzen du, mozio hau onartzen denetik aurrera, aipaturiko ekimen hori Legebiltzarrean aurkezteko.”

Mozioan ezarritako bi hilabeteko epea iragan da, eta orain arte ez dugu izan hura bete izanaren berririk. Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

Ahozko galderaren testua

a.- Zergatik ez du bete Nafarroako Gobernuak Parlamentuak aho batez onetsitako mozioa?

b.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Parlamentuak ahoz batez onetsitakoa betetzeko?

c.- Gutxi gorabehera noiz beteko du?

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Zilbetiko errepedea egokitzeko kontusailaren betetze-mailari buruzkoa.

JOSÉ M.ª VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José M.ª Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, Zilbetiko errepedea egokitzeko kontusailaren betetze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioak

Legebiltzarraren kezka etengabea da beharrezkoak diren baldintzak sortzea enplegua sustatzeko, industria garatzeko eta aberastasuna sortzeko Nafarroako eskualde desberdinetan.

Ardura horren ondorioz, jakin dugu Magna enpresak meategi bat ustiatu behar duela Erroibarrean, Zilbetitik oso gertu. Horrek eragin ona izanen luke inguruko herrietan, lanpostu kopuru garrantzitsua sortuko baita.

Horrekin lotuta eta printzipio horiei jarraikiz, PSN-PSOEk milioi bat euroko zuzenketa aurkeztu zuen. Zuzenketa onetsi egin zen eta 2009ko aurrekontuetan sartu zen, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren bidez, hain zuzen, Zilbeti eta Saigots arteko NA-2532 errepedearen egoera eta trazadura hobetzeko, eta, hala, Magna enpresak bultzatu nahi duen industria-jarduera ahalbidetzeko.

Galderaren testua

Zenbatekoa da 2009ko aurrekontuetan Zilbetiko errepedea hobetzeko dagoen milioi bat euroko kontusailaren betetze-maila?

Iruñean, 2009ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: José M.ª Vázquez Royo

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak karobien hondakinei edo modalitatei buruzko katalogorik ba ote duen jakiteko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak karobien hondakinei edo modalitatei buruzko katalogorik ba ote duen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezai-on:

Departamentu horrek ba al du foru erkidegoko burdinolen hondakinen eta moten katalogorik? Zer azterlan egin dira horri buruz?

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, mahatsondoaren eta ardoaren teknologia zentroa sortzeko asmoari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, mahatsondoaren eta ardoaren teknologia zentroa sortzeko asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezai-on:

2009ko apirilaren 16an, Erriberriko Nafarroa Jatorrizko Deiturako Ardoaren Foro Estrategikoan, Nafarroako Gobernuak lehendakariak proposatu zuen mahatsondoaren eta ardoaren teknologia-zentro bat sortzea.

Gaur egun, EVENAk –Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa– egiten ditu mahastizaintzaren eta ardogintzaren arloko jardura ofizialak, bai eta mahastizainen, enologoaren eta ardandegizainen profesionalizazioaren ingurukoa ere.

Dakigun moduan, EVENA Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren menpeko erakunde autonomo bat da.

Kontuan hartuta mahatsondoaren eta ardoaren teknologia-zentro bat sortzea ez dagoela aurreikusita gaur egungo Gobernuaren legegintzaldiaren programan, ez eta Nafarroa 2012 Planean edo 2007-2012 urteetarako Gobernuaren ekintza-planetan ere, parlamentari honek hau jakin nahi du:

1. Zer kontusailekin sortuko du Nafarroako Gobernuak mahatsondoaren eta ardoaren teknologia-zentroa?

2. Mahatsondoaren eta ardoaren teknologia-zentroa sortzearen ondorioz, zein egoeratan gertatuko litzateke Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa?

3. Zentro teknologiko berriak Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa hartuko luke?

4. Zentro teknologiko berriaren proiektuaren kopia jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko nola beteko duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak Barañaingo Auditorioaren Guneko kudeatzaileekin lehen finantzaketa hitzarmenean adostutako aurrekontua.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko nola beteko duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak Barañaingo Auditorioaren Guneko kudeatzaileekin lehen finantzaketa hitzarmenean adostutako aurrekontua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutako jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2009ko apirilaren 4an prentsan agertutako informazio baten arabera, Nafarroako Gobernuak 200.000 euro emanen dizkio Barañaingo Auditorioari. Horren inguruan, gogorarazi behar da 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan A2500 A20002 4816 335112 "Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmena" izeneko kontusaila agertzen dela, 80.000 euro dituen.

Nafarroako Gobernuak eta gune horretako kudeatzaileek eginiko lehen finantzaketa-hitzarmenean aipatu 80.000 euroko kontusaila ezartzen da, beste 120.000 euroekin osatuko dena.

Lehenago parlamentari honek eginiko galdera idatziari erantzunik eman ez zaionez, hau jakin nahi dut:

Nondik aterako ditu Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak Barañaingo Auditorioaren Guneko kudeatzaileekin adostutako finantzaketa-hitzarmena osatzeko behar diren 120.000 euroak?

Iruñean, 2009ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Gobernuak Patxi Goñi Boluntarioen Eskolari, Agoizko Bilaketa Kultura Taldeak kudeatutakoari, emandako dirulaguntzei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Patxi Goñi Boluntarioen Eskolari, Agoizko Bilaketa Kultura Taldeak kudeatutakoari, emandako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutako jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer dirulaguntza eman dizkie Nafarroako Gobernuak, zenbatekoak, zein datetan eta zein laguntzen deialdi edo programetan oinarrituta, Agoizko Bilaketa Kultura Taldeak kudeatzen duen Patxi Goñi Boluntarioen Eskolari?

Iruñean, 2009ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Agoitzeko Casa Díaz izeneko eraikin babestuan apartahotel bat edo turismoko apartamentuak eraikitzeko asmoari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Agoitzeko Casa Díaz izeneko eraikin babestuan apartahotel bat edo turismoko apartamentuak eraikitzeko asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion: .

Agoizko Udal Planaren 5. agiriaren 15. artikulua honela dio:

“Eraikin baten babes integralak dakar haren egitura eta banaketa orokorra mantentzeko bete-beharra, bai eta kanpoko itxura eta elementu arkitektoniko bereizgarriak zaintzekoa ere: patioak, eskailerak, baoak, itxiturak eta abar.

Hauek dira baimenduko diren lan bakarrak:

~ Zaharberritzea

~ Elementuak birjartzea

~ Instalazioen modernizazioa eta eguneratzea

~ Erantsitako lanak botatzea.

Eraikinaren lehengoratzeko funtzionalak justifikatuz gero, trenkadak eta barneko itxiturak modernizatzeko obretarako baimena eman ahalko da, betiere lan horiek eraginik ez badute banaketa orokorrean ez eta euste-egituran ere, eta eraikinaren jatorrizko tipologia mantentzen dela bermatzen bada.

Erabilera onargarriek jatorrizkoen berdinak edo antzekoak izan beharko dute, espazio, tipologia eta egitura aldetik izan ditzaketen ondorioetan.”

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak ba al daki ezer laster apartahotel bat edo turismoko apartamentuak eraikitzeari buruz Agoizko Trinkete kaleko 9-11 zenbakietan dagoen eta babes integralaren graduarekin babestuta dagoen eraikinean?

2. Nafarroako Gobernuak uste al du Agoizko alkateak 2009ko urtarrilaren 30ean igorritako birgaitzerako oinarrizko proiektuan errespetatzen dela Agoizko Udal Planaren 5. agiriaren 15. artikulua?

3. Agoizko Udalak Nafarroako Gobernuari igorritako birgaitzerako oinarrizko proiektuaren kopia bat jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Gobernuak enpleguko dirulaguntza zuzenera eta langabetuen prestakuntzara bideratutako baliabide ekonomikoei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak enpleguko dirulaguntza zuzenera eta langabetuen prestakuntzara bideratutako baliabide ekonomikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Duela gutxi, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak enpresei dirulaguntza zuzenak emateko neurri bat ezagutarazi du, horiek lanpostuak sor ditzaten, bai kontratu mugagabea dutenak bai aldi baterakoak. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak esan duenez, dirulaguntza zuzen hori 2.500 eurokoa izanen da kontratu mugagabe bakoitzeko; 1.500 eurokoa, ezgaitasunen bat duten pertsonen enplegua sustatzeko kontratuarentzat; 1.000 eurokoa, aldi baterako kontratua mugagabe egiteagatik; eta beste 1.000 eurokoa, 12 hilabeteko aldi baterako kontratu

bakoitzagatik –sei hilabeteko, lan hitzarmenean ez bada aurreikusten 12koa lanak zabaltzeagatik–. Horretarako, kontratuak hemendik hasi eta azararen amaierara bitartean sinatu beharko dira eta enpresako plantilla handitzea ekarri beharko dute.

Dirulaguntza horietarako aurreikusitako gutzira, 19 milioi eurokoa da, eta horiekin 8.000 lanpostu berri sortu nahi dira Nafarroan.

Halaber, hilean 350 euroko dirulaguntza zuzenak iragarri dira, hiru hilabetez langabezian egondako 525 pertsonentzat –aurrekontu osoa 500.000 eurokoa da–, laneratzea sustatze aldera, lana bilatzeko programa pertsonalizatu baten bidez, bai eta udaletarako dirulaguntza zuzena ere, langabezian dauden 150 lagun kontratatzeke interes sozialeko obretarako, milioi bat euroko kostuarekin. Azkenik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak lau milioi euro inbertituko ditu ezgaitasunen bat duten pertsonentzako enplegu zentro berezietan eta gizartean baztertuta egoteko arriskuan dauden taldeentzako laneratze zentroetan enplegua mantentzeko, lanpostuko prestakuntzaren kontzeptupean.

Hori guztia kontuan hartuta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Zenbat diru bideratu du Nafarroako Gobernuak azken ekitaldietan enplegurako dirulaguntza zuzenera? 2008an eginiko gastua eta 2009rako aurreikuspenak xehakitzea nahiko nuke.

2.- Zenbat diru bideratu du Nafarroako Gobernuak azken ekitaldietan langabetuen prestakuntzara? 2008an eginiko inbertsioa eta 2009rako aurreikuspena xehakitzea nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Hezkuntza Departamentuak eta euskarazko hedabide nafarrek finantzaketa hitzarmenak sinatzeari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak eta euskarazko hedabide nafarrek finantzaketa hitzarmenak sinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Otsailaren 6an, Hezkuntza Batzordeak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen finantzaketa-hitzarmenak sina zitzan euskarazko hedabide nafarrek, haien finantzaketa ziurtatzeko.

1.- Zer urrats egin ditu orain arte Hezkuntza Departamentuak, erabakian xedaturikoa garatzeko?

2.- Etorkizun hurbilari begira, zer egiteko asmoa du?

Iruñean, 2009ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

